

AURKEZPENA

Gure enpresa umeei eta gurasoei zuzenduta egongo da, gure lokalean, jarduera ezberdinak burutuko ditugu, bai umeentzako, bai gurasoentzako eta baita biek batera egiteko. Horrez gain, kafetegi bat ere izango du.

Egunean zehar gure eskaintza bakarra taberna izango da, baina arratsaldeko 5etatik 7etara umeentzako eta gurasoentzako ekintza ezberdinak egingo ditugu. Jarduera batzuk, umeei soilik zuzendutakoak izango dira, jokuaren bidez, balore ezberdinak ikas ditzaten. Bestalde, gurasoek eta umeek elkarrekin egiteko ekintzak ere egingo ditugu, yoga edota euskal dantzak adibidez. Azkenik, hilean 3-tan hitzaldi bereziak izango dira, batez ere, gurasoentzat. Hitzaldi horiek, gure webgunean dugun foroaren bidez erabakiko ditugu eta aukeratutako gaiaren ingurua jakituna den pertsona batek emango du.

Astelehen, asteazken eta ostiraletan 4-6 urteko umeei zuzenduta eta astearte, ostegun eta larunbatetan 7-9 urteko umeei.

Argi dugu, gure enpresak eskainiko duen jarduera kultur etxeek ere eskaintzen dutela eta konpetentzia handia izango direla, baina guk ez dugu haiek eskaintzen dutena soilik eskaintzen. Umeak zaintzeaz eta haiekin jolasteaz gain, gurasoen eta umeen arteko elkarrekintza sustatuko dugu eta horrez gain, hitzaldi ezberdinak eta taberna ere eskainiko ditugu.